



IGANTZIKO UDALA

DEIALDIA ZERBITZU ANITZETAKO BI PEOI KONTRATATZEKO, ALDI BATERAKO LAN KONTRATUEKIN, ETA HAUTAPEN FROGEN BITARTEZ

-OINARRIAK-

1. Oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Igantziko Udaleko zerbitzu anitzetako bi peoi euskaldun kontratatzea, aldi baterako lan kontratuarekin eta hautapen froga bitartez.

1.2. Honako hautapen froga honetatik eratorritako kontratuaren **iraupena 6 hilabetekoa izanen da.**

1.3. Lan postu honetako lansaria Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen E mailari dagozkion oinarritzkoa izanen da. Honako lansari honi % 15 (Mailako Osagarria) gehituko zaio.

1.4. Lanaldia osoa izanen da. Lanaldia zerbitzuen beharretara egokituko da eta udalak edozein unetan aldatu ahal izanen du.

1.5. Kontratazioak Nafar Lansare – Servicio Navarro de Empleo zuzendari kudeatzailearen 251/2018 Ebazpenean ezartzen denaren arabera eginen dira, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeko.

1.6. Langabeen lan-kontratazioa, interes orokorreko edo sozialeko obrak eta zerbitzuak egiteko, haien enplegagarritasuna hobetzeko eta lanbide-gaitasunak eskuratuta lan merkatuan sartzea errazteko, honako eginkizun hauek bete beharko dituzte:

- Ur biltegien, hornidura eta saneamendu sareen mantentze-lanak.
- Herriko argiteriaren mantentze lanak.
- Udalaren bertze hiri zerbitzuen mantentze eta zaintza lanak.
- Hiri altzarien pintatze lanak.
- Basolanak eta ingurune naturalaren mantentze lanak.
- Igantziko karriken garbiketa eta mantentze-lana.
- Igerilekuko kudeaketaz arduratzea, hala badagokio. Hala nola: komunak eta aldagelak garbitu eta leihatila kudeatu.

2. Oinarria. Izangaiek bete beharreko baldintzak (eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean):

Honako deialdi honetan onartua izateko izangaiek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritarra izatea edo Europar Batasuneko bertze Estatu batekoa, edo langileen joan-etorri askea aplikatzen den eremuko Estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko tratatuak direla medio.

Espainiarren eta Europar Batasuneko bertze estatu bateko edo aipatu nazioarteko tratatuek ukitutako Estatuetakoa herritarren ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez berezita ez



IGANTZIKO UDALA

badaude. Era berean, haien ondorengoen eta ezkontiderenek, legez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

d) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ez izatea.

e) Euskararen ezagutza maila -B2 ahoz- honela frogatzea:

- B2 mailako agiria edo baliokidea aurkeztu eskaerarekin batera.
- Jakite-maila egiaztatzeko frogak gainditzea.

f) Eskola-ziurtagiria edo baliokidea izatea.

g) B motako gidabaimena izatea.

h) Enplegu-eskatzaile gisa inskribatuta egotea Nafar Lansareko enplegu bulego batean eta dagokion zundaketan sartua egotea.

i) Igantziko Udalak ez kontratatu izana hiru hilabeteko edo gehiagoko epean, deialdi honetan aipatutako dirulaguntzaren babesean, ekitaldi berean edo aurreko bietan, Nafar Lansareren dirulaguntzaren 3.1.a) oinarrian aurreikusitako kolektiboetan izan ezik (251/2018 Ebazpena).

3. Oinarria. Eskabideak.

3.1. Eskabideak Igantziko Udaleko Erregistroan aurkeztu behar dira edota 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan ezartzen diren baliabideak erabilia.

Bigarren kasu horretan, 24 orduko epean, izangaiak posta elektronikoz jakinarazi beharko dio Igantziko Udalari eskaera aurkeztu duela (idezakari@igantzi.eus)

Gainera, "Correos"eko bulego batean aurkeztuz gero, kartazal ireki batean sartu beharko du eskaera, ziurtatu aitzinetik datatu eta zigilatua ahal izateko. Horrela bada, bidalketa elektronikoa egiten ahalko da bertatik, ORVEko helmuga digitaleko Kodea L01310229 izanik.

3.2. Eskabideak deialdi honetako I. Eranskinean agertzen den ereduaren arabekoak izanen dira eta bertan izangaiak betebeharrak guztiak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute eskabideak aurkezteko epearen azken egunean.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea **2024ko maiatzaren 17ko 14:00ak artekoa** izanen da.

3.4. Eskabidearekin batera dokumentazioa aurkeztu behar da:



IGANTZIKO UDALA

- N.A.N. fotokopia.
- 2.f) oinarrietako titulua(k) (edo titulu horiek eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eskuratzeko baldintzak betetzen dituela frogatzen duen agiria).
- B tipoko gidabaimenaren fotokopia.
- Deialdi honen oinarrien arabera baloratu beharreko merezimenduak (6. oinarrian aurreikusiak).
- Hala badagokio, 2. oinarriko e) puntuko euskara ezagutzaren agiria.

4. Oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.

4.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

- Lehendakaria: Juankar Unanua Navarro, Igantziko Udaleko alkatea.
Ordezkoa: Bere ordez izendatzen duena.
- 1. Mahaikidea: Edurne Huitzi Eratsun, Igantziko Udaleko zinegotzia.
Ordezkoa: Roberto Txoperena Iturbide, Igantziko Udaleko zinegotzia.
- 2. Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte, Igantziko Udaleko idazkaria.
Ordezkoa: Bere ordez izendatzen duena.

4.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiko oinarrien interpretazio eta aplikazioari buruz sortzen diren gorabeherak. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza izan dezake froga batzuetan nahiz guztietan.

5. Oinarria. Probak.

5.1. **Euskara proba.** Bertze dozein froga egin aitzinetik euskara froga eginen da eta honako hau baztertzatzailea izanen da eta B2 edo baliokidea aurkeztu ez duten hautagaiei eginen zaie.

Ahozko azterketa eginen da eskatutako hizkuntza jakite maila frogatzeko. "Gai" edo "Ez Gai"tzat hartuko dira hautagaiak. Froga gainditu beharko da gainerako frogak egin ahal izateko. Egitera aurkezten ez direnak baztertuak izanen dira. Frogak egiteko lekua eta ordua hautagaiei telefonoz erranen zaie.

Ondoren, epaimahaiak adierazitako egun eta orduan proba teorikoa eginen da.

5.2. **Proba teorikoa:** egin beharreko lanaren inguruko galderak egingo dira test moduko froga baten bidez. Frogak egiteko lekua eta ordua hautagaiei telefonoz erranen zaie. Ariketak plika sistema bidez eginen dira.

Epaimahaiak erabakiko du frogaren iraupena. Puntuazioa: **30 puntu** gehienez ere eta galdera guztien balioa berdina izanen da.

Kontratazio prozeduran parte hartzeko bi eskaera aurkeztuz gero, ez da puntu honetan xedaturiko froga teorikoa eginen.



IGANTZIKO UDALA

6. Oinarria. Esperientzia/merezimenduak.

6.1. Oinarri hauetan jasotako zehaztapenen arabera merezimenduak dituztela uste duten izangai guztiek agiri bidez egiaztatu beharko dute eskabidearekin batera.

6.2. Epaimahaiak, 5. oinarrian aurreikusitako frogak egin ondoren, izangaiak egiaztatutako merezimenduak baloratuko ditu ondoko honen arabera eta puntuazioak ezin izanen du inoiz **20 puntu** gehienekoa gainditu:

- Edozein entitate publiko zein pribatuan 1. oinarriko 1.6. puntuan aipatzen diren eginkizunetan enplegatu gisa aritu izanagatik: 1 puntu urte oso bakoitzeko, 15 puntu gehienez.

- Eginkizunekin zerikusia duten ikastaroak edo bertzelako formakuntzak egin izanagatik 1. Oinarriko 1.6. puntuan aipatzen direnekin zerikusia dutenak: 0,15 puntu ordu bakoitzeko, 5 puntu gehienez.

Honako kriterio honen balorazioa ondorengo arauen arabera egingen da:

- Baloratu beharreko urte-kopurua osoa ez bada, dagokion proportzionaltasunaren arabera egingen da.

- Baloratu beharreko ikastaro edo formakuntzak orduka hartuko dira kontuan, hau da, 0,15 puntu formakuntza edo kurtso ordu bakoitzeko. Era berean, ikastaroa iraupenaren arabera kontabilizatuko da.

- Baremoko talde berean sartutako zerbitzuak ez dira bi aldiz ebaluatuko, baldin eta aldi berdinetan gauzatu badira.

- Jatorrizko dokumentu bidez egiaztatutako merezimenduak edo behar bezala konpultsatutako merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan eskabidea aurkezteko unean edo zuzentzeko epean (onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendaren ondoren).

- Balorazioa egiteko, deialdia argitaratzen den egunera arte emandako zerbitzuak hartuko dira kontuan.

7. Oinarria. Kontratazioa egiteko izangaien zerrenda.

7.1. Proba teorikoan lortutako emaitzari merezimenduetan lortutako emaitza gehituko zaio, honela, epaimahaiak aldi baterako kontratazioa egiteko izangaien zerrenda argitaratuko du Igantzi Udaleko iragarki taulan. Era berean, hautagaiei telefono zein ebazpen bidez jakinaraziko zaie egindako frogen emaitzak.

7.2. Berdinketa egonez gero, 6. oinarrian ezarritako esperientzia/merezimendu balorazioan gehiengo puntuazioaren arabera deseginen da. Halaber, berdinketan jarraituko balu, honako hau zozketa bidez deseginen da.

7.3. Izangaien zerrendan hurrenkera jartzeko hautapen frogetan lortutako puntuazioa handienetik hasita egingen da.



IGANTZIKO UDALA

7.4. Kontratazioak izangaien hurrenkerari jarraiturik eginen dira. Hau da, lehenengo gelditu den izangaia aurrenekoa izanen da kontratatzen eta jarraian gelditu dena berriz, hilabete bat beranduago (lehenengo kontratazioa egin zenetik kontatzen hasita), gehienez ere, hasiko du bere kontratua.

7.5. Behin kontratazioa eginda, lanpostua berriz ere hutsik geratzen bada, aurreko atalean aipatzen den gaindituen zerrendan sartutako izangaiarekin beteko da, eta pertsona horrekin aurreko ataletan adierazitako moduan jardunen da.

8. Oinarria. Datuen babesari buruzko informazioa.

Datuen tratamenduaren arduraduna

Identitatea: Igantziko Udala.

Helbidea: Karrika Nagusia, 5, 31790,

Telefonoa: 948 637 781

Posta elektronikoa: bulegoa@igantzi.eus

Datuak babesteko ordezkaria: idazkari@igantzi.eus

9. Oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen oinarrien aurka edo berau aplikatzeko egintzen aurka, hautara, ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintza burutu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, erabakia argitaratu edo errekurritu nahi den ekintza jakinarazten denetik hasita.

Gainera, epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahalko da, Udaleko alkate udalburuari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi ondotik.

Igantzi, 2024ko apirilaren 30ean.

EGINBIDEA:

Konstarazteko zerbitzu anitzetako peoi bat kontratatze aldi baterako lan kontratuarekin eta hautapen frogen bitartez arautzen duen deialdia 2024ko apirilaren 30eko 53/2024 Alkate Ebazpen bidez onetsi dela.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.

O°E° ALKATEA,

IDAZKARIA,



IGANTZIKO UDALA

DEIALDIA ZERBITZU ANITZETAKO BI PEOI KONTRATATZEKO, ALDI BATERAKO LAN KONTRATUEKIN, ETA HAUTAPEN FROGEN BITARTEZ (Apirilaren 30eko 53/2024 Alkate Ebazpen bidez onetsia)

I.ERANSKINA ESKABIDE EREDUA

DATU PERTSONALAK:

Izen- abizenak:.....
NAN edo baliokidea: Jaiotze data:.....
Non jaioa:.....(.....) Nazionalitatea:.....
Helbidea:.....
Herria:..... Probintzia:..... Posta kodea:
Telefonoak:..... Posta elektronikoa:.....

ADIERAZTEN DUT:

- ❖ Deialdiaren 2. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen ditudala.
- ❖ Lanpostuan aritzea galarazten didan eritasun edo urritasun fisiko edo psikikorik ez dudala.
- ❖ Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunetako bakar bat ere ez dudala.
- ❖ Ez nautela ezein Administrazio Publikoren zerbitzutik bereizi disziplina espediente bidez, eta ez nagoela ezgaituta eginkizun publikoak betetzeko.
- ❖ Deialdiaren 2. oinarrian eskatutako titulazioaren frogagiria aurkeztu dudala.
- ❖ Ezarritako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epearen azken egunerako.
 - Euskara maila frogatzen dut. *(Adierazi X batez zein den).*
 - Euskara froga egin behar dut. *(Adierazi X batez zein den).*
- ❖ Epaimahaiari baimena ematen dudala sakelako telefonoa erabiltzeko, hautapen frogak zein toki, egun eta ordutan eginen diren jakinarazteko.

ESKATZEN DUT:

Hautapen frogetara onartua izatea.

(Eguna eta sinadura)